

Euskaraz mintzatzeko Interneten bidezko ekimena

12 getxotarrek parte hartzen dute Mintzanetean

Mintzanet, munduko edozer txokotan egonda ere euskaraz Interneten bidez hitz egiteko aukera eskaintzen duen ekimena da. Gaur egun 350 erabiltzaile ditu eta horien artean 12 getxotarrak dira. Duela hiru urte sortutako proiektuak euskaraz ondo moldatzen direnak (bidelaguna) eta hobetu nahi dutenak (bidelariak) elkartzen ditu, beraiek adosten duten orduan konektatu eta hitz egiteko.

Bidelagunek ez dute titulu behar eta bidelariak elkarrizketa bat mantentzeko gai (B1 maila) izan behar dute. Elkarrizketak binaka egiten dira. Izena ematerakoan interesatuek esan behar dute zein egunetan eta zein orduetan hitz egin nahi duten, eta antolatzaileek pertsonak elkartzen dituzte.

Profil eta gaiak

Erabiltzaileen profilari dagokionez, denetarik dago, gazteenak 17 urte ditu eta zaharrenak 90 urte. Gaiak beraien gustukoak izaten dira. Erabiltzaileen % 80 Euskal Herrian daude eta % 20 atzerrian, esate baterako Argentinan, Txilen, Estatu Batuetan, Alemanian..., beraien arbasoak euskaldunak direlako, eta beren erroak nahi dituztelako mantendu, eta bestetik, hemengo gazteak joan direlako atzerrira lanera eta euskararekin harremana mantendu nahi dutelako.

Ekimenean parte hartzeko ordenagailua, webkamera, mikrofonoa eta kaskoak behar dira eta Skypen bidez, edo Mintzaneteko webgunean dagoen plataformaren bidez hitz egin daiteke. Informazioa eta izen-ematea: www.mintzanet.net.

Partaidetza getxotarra

Mintzanetean parte hartzen duen getxotarretako bat Jose Ramon Onaindia da. Ekimena abiatu zenean bidelaria izaten hasi zen baina gaur egun bi paperak betetzen ditu, Bergarako, Argentinako, Tuterako eta Algortako bizilagunekin. Saioak ordu erdikoak izan arren, berak mantentzen dituenak ordu bat terdikoak izatera heltzen dira. "Gustatzen zait euskara ikastea eta praktikatzeko. Udalerrian EGIZUK antolatzen dituen ekitaldietan ere hartzen dut parte. Interneten bidezko saio hauek duten desberdintasuna da jaritasun handia ematen dutela, pantailaren bestaldean dagoen pertsonarekin ezin zarelako isilik geratu, eta gainera adiskidetasun handia sortzen da. Horregatik oso ekimen interesgarria da", nabarmendu du Onaindiak.

Hutsen zerrenda

Getxoberriren aurreko alean Washingtonen ospatutako *Smithsonian Folklife Festival* Jaialdian bi getxotarrak izan duten partaidetzari buruzko erreportajea argitaratu zen. Horietariko bat **GORKA MOTA** izan zen, eta ez Moreno, akatsez kaleratu bezala.



Elkartoki programaren bigarren edizioari esker

San Nikolas ikastolako ikasleek parte hartu dute jolastokiaren diseinuan eta eraiketan

San Nikolas Ikastolak, Ttipi Studio kooperatibaren eskutik, parte hartu du amaitu den ikasturtean ELKARTOKIren bigarren edizioan. Zentroan elkarlanean oinarritutako eraldaketa lortzea du helburu ekimenak. ELKARTOKIn eskolaumeek irudikatu eta eraikitzen dituzte zenbait lan eta esku-hartze eredu, jolastokia eta bere dinamikak eraldatzeko asmoarekin. Abiatutako proiektua jolastokiko esku-hartzeen eraikuntzarekin azken txanpan sartu zen

San Nikolas ikastolako Lehen Hezkuntzako 450 bat ikasleek hartu dute parte ikasturte osoan zehar, zenbait tailer eta jardueren bitartez. Besteak beste, tailer eta ekimenean, ikasleek eguneko jolastokia aztertu eta etorkizuneko diseinatu dituzte. Azken txanpan, ekainean, ikasleek auto-eraketan eta elkarlanean oinarritutako eraldaketa fisikoan lan egin zuten. Eraldaketa lanetan jolastu eta esertzeko artefaktuen eraikuntza, zoru eta horma-irudien margotzea eta mahai jolasentzako espazio baten berreskuratzea burutu dituzte.

Helburua

ELKARTOKIk "eskolan izan behar diren baterako hezkuntza eta parte hartzea dituen helburu, eskoletako jolastokien eraldaketan begira jarrita; hauek, gune estandarizatuak izaten dira, jolas batzuk lehenetsiz beste batzuk baztertuta, eskolaumeen behar eta identitate ezberdinak kontutan hartu gabe", azaldu dute Ttipi Studio kooperatibatik. Diseinua eta artea lengoia nagusitzat hartuta, egitasmo esperientzial honek parekidetasun eta parte hartze baloreetan sakondu nahi du, gune baten eraldaketa fisikoa erabiliz bide moduan.

Ikastolaren balorazioa

Ikastolak oso positibotzat eta aberasgarritzat jo du esperientzia, ikastola komunitatea osatzen dutenentzat, hala nola, ikasle, irakasle, guraso eta gainerako langileentzat. "Eskolako patioak ikasketarako, jolaserako eta kalitatezko harremanak sustatzeko espazio gisa

ekainean, auto-eraketan eta elkarlanean oinarritutako eraldaketa fisikoarekin. Hau egitasmoaren bigarren ekimena da, lehenengoz, iragan ikasturtean bi programa pilotu izan zirelarik Getxoko Zabala eskolan eta Bilboko Karmelo ikastolan. Egitasmoa Eusko Jaurlaritzako Sorkuntzarako Lantegiak programaren diru-laguntzarekin garatzen ari da eta eskolaumeek jolastoki berriaren berdisainu eta eraiketaren egikiariak izatea bilatzen du.

duen funtzioaz arduratuta, programak genero berdintasuna, elkarbizitza eta balio barneratzaileak lantzeko xedea izan du", azpimarratu dute ikastolakoek.

Ikasturte osoan aurrera eraman den prozesuak fase ezberdinak izan ditu. Ikasleek espazioaz jabetzeko eta esperimintatzeko aukera izan zuten, arte eta diseinu munduan adituak direnekin harremanetan jarritz. Horiengandik jasotako ideiak eta ikuspuntuak ezagutu ostean, ikastolako zein espazio moldatuko zuten erabaki behar izan zuten, eta azken fasean, behin hori zehaztuta, leku horiek moldatzeko ikasleen proposamenak bildu zituzten arduradunek eta beraiek bideratu zuten ondorengo prozesua ere. Azkeneko fasean, aurrekoetan erabakitako proposamenak elkarlanean eraikitzen hasi ziren ikasleak. Horrela, espazioaren

erabiltzaile direnek esku hartze zuzena izan dute inguruaren berrantolaketa, eta aldaketen protagonistak izan dira.

Esperientzia

Bi ediziotako esperientzia elkartokicom blogean jasotzen ari da. Gainera, edizio honen itxiera gisa, aurtengo esperientziari buruzko bideo-dokumentala ekoizten ari da, non gaiari lotutako eragile esanguratsuen iritziak ere jasoko diren. Datorren ikasturteari begira, ELKARTOKIk eskolak proiektuaren motore izateko formakuntza eta monitorizazioa eskainiko ditu. Horiarekin batera, eskolekin proiektuaren garapenean elkarlanean aritzeko artistentzako egoitzetarako deialdia antolatuko da, horiek jolastokien eraldaketetan kolabora dezaten.

